

EUSKADIREN AHOTSA. CON VOZ PROPIA.



Aitor
Esteban Bravo
atsegin dut 


ANDONI ORTUZAR Bakio, 2023ko uztailaren 8an

Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

Arratsalde on, bakiotarrak! Arratsalde on, inguruko alderdikide eta alderdizaleok! Eta, hemen esaten dan lez, arratsalde on beraneanteak! Eskerrik asko, uztailaren zapatu batean, hondartza ondoan izanda, hemen gurekin egoteagatik eta gure mezuei kasu egiteagatik.

Aitor Esteban ha sido el mejor diputado de esta legislatura. El orador más ingenioso y acertado, el más currela, el que ha sabido cantar las cuarenta a unos y a otras, el que mejor ha simbolizado que Euskadi necesita tener quien le defienda en Madrid. Ha sido hasta el más ocurrente. Pero sin ninguna estridencia. Esta, que ha sido la legislatura de las estridencias y los desmanes dialécticos... pero nadie encontrará en el diario de sesiones ningún exabrupto de Aitor ni de ninguno de nuestras y nuestros diputados. ¡¡¡Modelo PNV!!! Eskerrik asko, Aitor, egindako lanagatik eta zorionak!!!

Legeldi gogorra izan da, benetan. Konplikatua. Bakoitza egon da bere gauzein arduratuta; baina besteen gauzak sekula ez ziren gureak, Euskadirenak. Arazoa ez da bakarrik Euskadik ardura ez diela: beren Espainia bedeinkatu horrek ere ez die ardura. Espainiako alderdi handiek erakutsi dute, gizartearen interesen gainetik, euren asmoa dela hurkoa astintzen ibiltzea eta iritzi publikoaren aurrean besteen sinesgarritasuna desaktibatzea.

Los partidos españoles se han peleado: los de izquierdas contra los de derechas y viceversa. Pero es que, además, los de derechas se han peleado con saña contra los de ultraderecha y viceversa. Y en la izquierda, lo mismo. PSOE contra Podemos y viceversa. Hasta dentro de Podemos ha habido leña sin cuartel, para terminar en un proyecto que se llama 'Sumar' pero parece que resta. La palabra que mejor define a la política española es el cainismo. Practican cainismo político. Y, claro, nosotras y nosotros no nos salvamos. En Madrid y también en sus sucursales aquí.

Si leísteis ayer el periódico veríais que en la misma página salían dos titulares contradictorios, y los dos iban contra el Alderdi. En uno, Iturgaiz decía que no había que votar al PNV porque eso es votar a Sánchez. Y, justo al lado, venía una declaración del candidato de Sumar, Lander Martínez, que decía que no había que votar al PNV porque eso era votar al PP. Da para tirar de ironía. El voto al PNV vale por tres: ¡votas al PNV, a Sánchez y al PP al mismo tiempo! Igual tenemos que cambiar el argumentario de campaña y cambiar lo de la 'Voz de Euskadi' por 'el Voto Triple'. "Voten al PNV, que luego ya decidimos nosotras y nosotros a quién sentamos en la Moncloa".

Estaría bien. Pero La Moncloa no es parte de nuestro interés. Nuestro interés es el interés de Euskadi, los intereses de vascas y vascos, y no quién se sienta en la Moncloa. Lo que ahora decidimos, lo que el 23 de julio votamos, es qué hombres y mujeres de Euskadi van a Madrid a representarnos allí. Y, luego, ellas y ellos tendrán que tomar decisiones,

una de ellas –seguramente no la más importante– será la de elegir a quien se siente en la Moncloa. Y eso también sabremos hacerlo con responsabilidad, y, pensando en el bien de Euskadi, votaremos a quien creamos que es mejor –mejor dicho, menos malo– para conseguir superar los retos que tiene ahora por delante Euskadi.

Argi dagoena da enbarazu egiten diegula. Batzuei eta besteei. Paretik kendu nahi gaituzte. Saltsa hau dena Espainiako alderdien artekoa izatea nahi dute. Gure txokoan utzi nahi gaituzte, eskua altxatu ezinik eta ahotsa altxatu ezinik Madrilen euskal autogobernua, edo industria eta kalitatezko enpleguak, edo pentsioak, edo azpiegiturak defendatu behar ditugunean. Edo, bestela, orain bezala, kostan gaudela, Kostaldean eta Itsasertzen Antolaketaren transferentzia erreklamatzeko orduan. Zentzurik al du hemen baimenik txikiena behar denean, Madrilek eman behar izateak? Ez, ezta? Baina argi izan ezazue PSOEek, PPK edo Podemosek ez dutela ezer ez egingo transferentzia hori gauzatzeko. Beste gauzekin gertatzen den bezala. Madrilen benetako agenda bakarra... gurea!

Molestamos, pero vamos a seguir molestándoles. Y levantando la mano y la voz en Madrid cada vez que haga falta. Es muy importante que haya una voz vasca libre, sin ataduras ni a izquierdas ni a derechas, que solo tenga el bienestar de la gente vasca como objetivo en su día a día en el Congreso y en el Senado. Y eso, hoy por hoy, solo lo garantiza el PNV. La voz vasca y solo vasca. La influencia de Euskadi en Madrid. Por eso tenemos que movernos a tope, para conseguir que la gente vaya a votar el día 23. Sabemos lo difícil que es que la gente en pleno verano haga caso a mítines y elecciones, pero tenemos que conseguir que vayan a votar y que voten PNV. Vienen cuatro años importantísimos para el futuro de nuestro País. Y, por desgracia, aún se deciden en Madrid demasiadas cosas que nos afectan, y mucho. No podemos dejar la representación vasca en malas manos, en manos que piensan solo en llegar a la Moncloa y lo vasco es secundario, les importa un pimiento. Por lo que dicen, Sánchez no va a venir ni tan siquiera a dar un mitin, y Feijóo parece ser que se ha animado finalmente a dejarse caer un rato por Vitoria... Eso les importa Euskadi: ¡Cero!

Euskal ordezkariak ezin dugu esku txarretan utzi, Moncloara iristean besterik pentsatzen ez dutenengan, euskal gaiak bigarren toki batean utziz. Bost axola zaie eurei gure gauzak. Zoritxarrez, Madrilen erabakitzen dira oraindik guri eragiten diguten gaiak. Horregatik euskal ordezkariak ezin dugu esku txarretan utzi. Horregatik bozkatu behar da Euzko Alderdi Jeltzalea. Inor ez dadila tranpan erori, hau dena ez delako biren arteko kontua. Ez. Hau ezin da jokatu erruletan bezala, beltza edo gorria. Euskadin koloreak daude. Eta bat, bereziki ederra, berdea. Gure mendi eta zelaien berdea; txakolin-parren berdea; Kantauri itsasoaren berdea hego haizeak jotzen duenean; EAJren berdea. Hemen PNV, Hemen Berdea!!!

Nos quieren llevar al 'Sánchez o Feijóo', nos quieren llevar al 'Guatemala o Guatepeor', pero aquí tenemos una opción mejor, aquí tenemos a Aitor. ¡¡¡Aitor y su tractor!!!

Alderdikideok, alderdizaleok, beraneanteak! Lanera! Hamabost egun dauzkagu aurretik lan egiteko, botoen bila joateko, herriz herri, auzoz auzo! ¡Somos el PNV, la voz vasca en Madrid!